

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko otsailaren 2tik 8rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/02/04

- 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpena, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bitartez argitaratzen den Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionala, O.A., M.P.ren eta Espainiako Normalizazio Elkartearen arteko Hitzarmena, normalizazio, prestakuntza, dibulgazio eta nazioarteko lankidetzako jardueren esparruan. **2019-1453 xedapena - 7 or.**
- 2019ko urtarrilaren 15eko Ebazpena, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den animalientzako elikagai konposatuen fabrikaziorako esparru nazionalerako hitzarmen kolektiboa. **2019-1456 xedapena - 49 or.**
- 2019ko urtarrilaren 15eko Ebazpena, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Argazkigintzaren industriako Estatuko hitzarmen kolektiboa. **2019-1458 xedapena - 9 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/02/08

- 2019ko urtarrilaren 24ko Ebazpena, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den 2019rako soldata igoerari buruzko akordioa, Saltoki handien sektoreko hitzarmen kolektiboaren barruan. **2019-1755 xedapena - 2 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/02/02

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA**

- Gizarte Segurantza. Urtarrilaren 31ko TMS/83/2019 Agindua, zeinaren bitartez garatzen diren 2019ko ekitaldirako Gizarte Segurantzaren kotizaziorako, langabeziarako, jarduera eteteagatiko babeserako, Soldatak Bermatzeko Funtserako eta lanbide heziketarako lege-arauak. **2019-1366 xedapena - 38 or.**
- 2019ko urtarrilaren 30eko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, zeinaren bitartez baimena ematen zaien kuoten ordainketa atzeratzeko 2019ko urtarriletik apirilera bitarteko langabezia aldiei dagokienez, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean, Nekazarien Sistema Berezian dauden norbere konturako langileei zein autonomoei. **2019-1367 xedapena - 2 or.**

2019/02/04

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA ERDINTASUNAREN MINISTERIOA**

- **Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - 2019ko urtarrilaren 23ko Ebazpena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, zeinaren bitartez aldatzen den 2009ko abuztuaren 14ko Ebazpena. Ebazpen horren bitartez ezartzen dira "Estatuko Aldizkari Ofizialean" eta "Merkataritza Erregistroko Aldizkari Ofizialean" paperean edo telematikoki iragarkiak sartzeko tasen ordainketarako prozedura eta baldintzak, bilketa kudeaketako erakunde kolaboratzaileen bitartez. **2019-1395 xedapena - 2 or.**

2019/02/05

- **OGASUN MINISTERIOA.** – Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia. - Abenduaren 17ko HAC/1375/2018 Aginduaren akats zuzenketa, zeinaren bidez onesten diren Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziari aplikatu dakizkiekeen batez besteko salmenta prezioak. 2019-1479 xedapena- 4 or.
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. - Zirkulazioa. Neurri bereziak.** - 2019ko urtarrilaren 24ko Ebazpena, Segurtasun Saileko Trafikoko Zuzendaritzarena, zeinaren bitartez ezartzen diren 2019. urteko trafikoa arautzeko neurri bereziak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2019-1481 xedapena- 9 or.

2019/02/07

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza. Kotizazio araudia.** - Urtarrilaren 25eko 17/2019 Errege Dekretua, zeinak aldatzen baitu Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko erregelamendu orokorra, abenduaren 22ko 2064/1995 Errege Dekretuak onetsia. 2019-1627 xedapena - 3 or.

2019/02/08

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza. Prestazioak.** - Otsailaren 6ko TMS/103/2019 Agindua, zeinaren bitartez aldatzen den uztailaren 29ko 1148/2011 Errege Dekretuaren eranskina, Gizarte Segurantzaren sisteman, minbiziak edo beste gaixotasun larriren batek jotako adin txikikoen zaintzarako prestazio ekonomikoak aplikatu eta garatzeko, eta adin txikikoaren etengabeko zaintzarako beharraren adierazpen medikoaren eredia onesteko. 2019 - 1691 xedapena - 10 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/02/04

- **FORU ARAUAK.** - 1/2019 Foru Araua, urtarrilaren 16koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 33/2013 foru araua aldatzeko. **228 xedapena - 3 or.**

2019/02/06

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK**
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 29koa. Onestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak. **299 xedapena - 3 or.**
 - 39/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 30ekoa, onesten duena Arabako Foru Aldundiaren bulegoak irekitzeko ordutegia eta bulegoak ixteko egunak 2019rako. **312 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO